

Alberto García Erauzkin | Presidentea

Egun hauetan, 2016ko ekitaldiko emaitzak aurkezten ari gara. Ekitaldi hori mugarrria izan da Euskaltel Taldearentzat. Urte eta erdi pasatxoko bizitzan, arrakastaz gainditu ditugu hiru erronka handi: batetik, konpainia burtsara ateratzea eta akziodunen luxuzko talde bat eratzea, tokiko, estatuko eta nazioarteko akziodun handiz osatua. Bestetik, Espainiako iparraldeko operadore liderra sortzea, Galiziako R taldean arrakastaz txertatu ondoren. Eta hirugarrenik, eta azkenik, lehen aldiz burtsara atera ginenetik gure akziodunentzat dibidenduak banatzea onartzea.

Hala da, Euskaltelen Administrazio Kontseiluak, otsailaren 22ko bileran, onartu du Akziodunen Batzar Nagusiari proposatzea akzioko 0,36 euroko dibidendua ematea. Horrek esan nahi du % 4,43ko errendimendua lortzea akzioak abenduaren 31n zuen balioarekiko, eta garbi adierazten du talde sendoa garela, finantza-kaudimena dugula eta dirua egiteko ahalmen frogatua dugula.

Baina, horren guztiaren aurretik, garrantzitsuena da sendoki gauzatutako estrategia aurrera eramateko frogatu dugun arrakasta. Estrategia hori komunikatu diogu merkatuari, eta estrategia horrek eman digu aukera gure akziodunen itxaropenak betetzeko 2016ko ekitaldian, dibidendu-banaketarekin; gure bezeroen itxaropenak betetzeko, produktu eta zerbitzu baliodunen eskaintzekin; gure lantaldearenak, strategiaren bat eginik eta motibazioz gainezka baitago; eta gure jardueraren kokagune diren gizarteak, hau da, euskal gizartea, Euskaltelen aldetik, eta galiziar gizartea, Rren aldetik, haiei garapen teknologikoa ekartzen baitiegu, eta enplegu egonkorra eta kalitatea, aberastasuna eta aurrerapena sortzen baititugu haietan.

Indartsu gaude. Liderrak gara gure merkatuan. Eta lidergo horrek berretsi egiten du gure estrategia sendoa: estrategia horri esker bete ditugu gure interes-taldeak itxaropenak 2016an, eta hari esker jarraituko dugu horretan etorkizunean ere.